

03

2020ko abendua

A
alea

MENDIALDEKO GAZTEOK
INDEPENDENTZIA

Mernai
Mendialdea

Mernai



IRAKURGAIAK

- ▶ Ekonomiaren izaera politikoaz eta hau klase perspektibatik aztertzearen garrantziaz Isidro Esnaolak Naizen idatzitako artikulua
naiz.eus/eu/info/noticia/20201213/otorgar-autoridad-para-anular-el-debate-sobre-politica-economica#.X9cfEG-XQbY.twitter
- ▶ Saharako egoera politiko eta sozialaz Muhamadu Ladur Ernaiko kideak idatzitakoa
erria.eus/sinadurak/saharak-berri
- ▶ Josu Urrutikoetxea Ezker Abertzaleko militante historikoari Berriak egindako elkarrizketa sakona, bere ibilbide pertsonalaz eta ETarenaz
berria.eus/albisteak/191232/delitu-terrorista-al-da-bakea-negoziatzea-ez-du-zentzurik.htm
- ▶ Ningra gazte raplaria, rapa, euskera, generoa eta arrazaz
argia.eus/argia-astekaria/2710/uxue-iturrate-ningra
- ▶ Arnadol Otegiari Publicon egindako elkarrizketa, Bateragune auziaren eta EH Bilduk Madrilen duen papere-
ren inguruan
publico.es/entrevistas/entrevista-coordinador-general-eh-bildu-arnaldo-otegi-otegi.html



GOMENDIOAK

- ▶ Etorkinen inguruko auziari klase sindikalismotik eman beharreko erantzunaren inguruko elkarrizketa, Pas-
tori Filigrana eta Mikel Alvarez
youtube.com/watch?v=ERNic1XfwQo
- ▶ Gazteria, emantzipazioa eta etxebizitzaren beharraren inguruan egindako ikerketa lana
gazteukera.euskadi.eus/contenidos/noticia/emantzipazioa_19/es_def/adjuntos/Informe_ENDV_Behato-ki_es.pdf
- ▶ Mertxe Aizpuruak Argalaren bizitza, borroka eta analisisien inguruan idatzitako liburua, garaiko testuinguru-
ere ondo kokatzen da
txalaparta.eus/es/libros/argala-pensamiento-en-accion
- ▶ Ocupacion S.A Saharar gatazka politikoaren atzean dauden interes ekonomikoak azaleratzen dituen doku-
mentala.
vimeo.com/483160336
- ▶ Burgosko Prozesuaren nondik norako nagusiak azaltzen dituen podcasta
labur.eus/Burgos-1atala

Aintzane Ariztegi



Ez ginateke gezurretan ibiliko hedabide tradizionalen etorkizuna kolokan dagoela esatean. Kolokan dagoela diogunean belaunaldi berriek hedabide horiekiko duten loturaz ariko ginateke. Gazteriak ez du egunkaririk erosten, ez du ia telebistarik ikusten... **Isolatuta bizi al dira gazteak? Ez, sareetan daude.** Duela urte gutxi arte arrotz genituen Instagram, Tik Tok edo Twitch bezalako sare-sozialak. Edo Netflix eta antzeko plataformak. Eguneroko ogia dira gaur egungo gazteen artean, Euskal Herrikoentzat ere bai.

Hedabideekiko interesa galdu du gazteriak; formagatk ez ezik, gazteria kriminalizatzeko eta karakteritzatzeko erabili izan direlako gehienak, azkenaldi honetan batik bat. Helduak zuzenduriko hedabide horiek gazteoi ahotsa eman ordez, gure hitza ordezkatzeko erabakia hartu dute. **Guri buruz ari dira, "baina ez digu inork ezer ere galdetu". Gure mikrofono propioetatik hitz egitea errebeldia keinu bat izatetik harago, gazteok ahalduzko bide bat ere bada.**

Ukaezina da gazteriaren erritmoetara egokitu ezean, haiekin sortu daitekeen konexio oro galtzeko arriskuan gaudela. Gazteok sorturiko

proiektu komunikatibo batek lor dezake harremana berreskuratzea; gazteriarengana iritsi, sareak gureganatu, berriz konektatu eta kritika sozial eta hausnarketa kolektiborako espazioak sortuz. Bi aukera ditugu: gazteriarekin birkonektatzen saiatu edo etorkizuna galdu.

Eztabaidaberriei heltzeko garaia da, gazteok hain gurea dugun freskotasuna zabaltzekoa. Ate berriak irekitzeko tenorea heldu da. Gai

eta forma berriei heltzea ezinbestekoa da espetakuluaren gizarte honetan norbaiten atentzioa deitu nahi bada. Teknologia berriekiko beldurraren menpe ezin gara geldirik egon, **komunikazioak hartu dituen forma eta norabide berriak gurean zer leku duten pentsatzea aspalditik atzeratzen gabiltzan etxeko lana dugu.** Sareetatik nola elikatu kolektiboa? Nola egin eztabaidak mugikorren paintailaz harago eragina eduki dezan? Sarean mobilizatzeak, kaleak desertu bilakatuko al ditu?

Argi dago sare-sozialen garapenak gizartearen indibidualizazio prozesua elikatu izan duela; baina horretarako sortu izan ditugu urte guzti hauetan gazte proiektu komunikatiboak: norbanakoaren sakontze horri planto egin eta sare sozialak gure proiektuak elikatzen tresna bilakatzeko. Helburu berarekin sortu da KLAK, eta guztion laguntzarekin soilik lortuko du helburu horiek erdiestea. Oraindik ez baduzu crowdfunding kanpainan parte hartu, berandu zabilta. Sartu itsulapikoa.eus-en eta **#EginKlak.**



Burgosko prozesua aipatzerakoan memoria ariketa dator kigu burura. 50 urte igaro direla gogoratzerakoan, iragana eta oraina gurutzatzen zaizkigu etorkizunera begira jartzeko.

1950a zen, herria auzipetu, zigortu eta berriro makurrarazi nahi zuen frankismoak eta horra bideratutako epaiketa izan zen. **Orduko militanteak eta independentismoa erais-tea zuen pentsatuta erregimen frankistak, ez zen hala gertatu ordea.** Modu lausoan iritsi zaigu gazteoi errelatoa, sistemak ahalegin berezia egin duelako garaipen hori ezkutatatu, testuingurutik atera eta arinkeriaz kontatua izan dadin.

Herri honen bizi nahia eta auserdia eraman zituzten tribunalerara 16 neska-mutil ameslarik, herri baten aurrean baina epaile militarrekin parez pare. 60. hamarkadan mugimendua zen nagusi, guztia zegoen egiteke eta hortan zebiltzan euskal herritarrak: ikurrinen zabalpena, langile klasea indartzen, ikastolen sorrera eta euska-



zea zen. Guzti horren aurkako epaiketa izan zen Burgoskoa, Euskal Herriarekin amaitzeko, militantea zigortzeko modua.

Epaietari aurre egiteko modua sortzailea izan zen, epaituaren eserlekutik erregimena epaitzen ari batziren akusatuak. Auzipetu bakoitzak bere abokatuarekin prestatu zuen defentsa, frankismoak sortutakoa eta egiten ari zena kontatu, eta Euskal Herriaren berri eman zuten, bakoitzak alor edota ideia batetik abiatuta. Euskal Herriaren ahotsa izan ziren, eta izan zen Burgos.

<< Epaietari aurre egiteko modua sortzailea izan zen, epaituaren eserlekutik erregimena epaitzen ari batziren akusatuak >>

raren biziberritzea... Testuinguru nahasi eta mugitu hartan Frankoren aurka eta Herriaren alde militatzeko hautua egin zuten hamarnaka gaztek, eta borrokatzeko bidea ETAn militat-

Epai-gelatik kanpo ere Euskal Herriak aurrera jarraitzen zuen, inoiz ikusiriko mobilizazio jendetsuenak egin ziren herriz herri, langile greben ondorioz ehundaka fabrika egon ziren

itxita, barrikadak kaleetan... Baina baita erasoak ere, eta poliziaren eskutik bi hildako.

Euskal Herriaren biziraupenerako mugarrria izan zen Burgos.

Biziraupeneaz gain, ezinetik zutitzen erakutsi ziguten gazte ausart haiek; gudan dirau beren ereduak. **Euskal gazteriak injustizien aurrean altxatzen jarraitzen du, gazteriak motore izaten jarraitzen du.** Lehen leerroan egon gara greba batzordeetan, gazteon bizi baldintzen aldeko borroketan, pandemia garaian zaintza sareetan gure ekarpena eginez, mugimendu feministan neska* gazteon problematika mahaigaineratuz... Sinesten dugu herri honen erai-kuntzan pieza klabea garela.

Erregimenak eta bere "herentziak" oraindik bizirik dirau. Baina baita herri grinak ere, eta hori da gazteon egunerokoa. **Hamaika injustizien aurrean altxatu gara, baina guztiek idea bera zu-**

ten jo-puntuak: Espainiar erregimenarekiko haustura.

Espainiar markoaren dependentzia langile klasearen eta herritarren duintasunaren aldeko urratsak emateko ozotopoa da. Euskal Herrian herri justuago, duinago, feministago eta berdearen aldeko urratsak emateko. Herri bat eraikitzeke azken batean. Eta bide horretan ezinbestekoa zaigu burujabetzak aldarrikatzeko, eta batez ere herri eraikuntzaren prozesuan aurrera egiteko, tresna bezala aldarrikatzetik egikaritzera pasatzea.

Espainiako eta Frantziako estatuek ez dute euskal herritarren gogo eta beharrak asebeteko dituen eskaintza politikorik. Aitzitik, ukazio, inposizio eta asimilazio asmoekin darraite. **Ezker independentismoaren bidean sakontzea dagokigu. Ezin dugu esan, gainera, independentismoaren aurkako estrategia baztertu dutenik inguratzen gaituzten Estatuek.** Orain ere ukazioarekin eta errepresioarekin erantzuten diote gure aldarrikapen eta gogo subiranistari.

Euskal Herrian borroka batzuk independentismoaren forma hartzen dute, ekologismoak, kulturgintzak edota prekarietateak kasu. Borroka olatu ezberdinak burujabetzatik pasatzea beharrezkoa da, hemen baita go markoa, hemen erantzuna, eta alternatiba errealak ere hemen daude. **Independentismoa borroka guzti horiek saretzetik eta erantzun bat ematetik pasa behar da.** Independentziaren beharra eskaintza politiko indartsua dela eta beste eskaintza politikoekin aurrez aurre lehiatzeko

prestatuta dago Euskal Herria. Zerumuga askatzaile bat murrizteko beharra ezinbestekoa

<<Euskal Herrian borroka batzuk independentismoaren forma hartzen dute, ekologismoak, kulturgintzak edota prekarietateak kasu>>

da gaur egun ere. Aipatu izan dugu orduko zenbait aldarrikapenek gaurkotasan handia duela eta gure zermugak Euskal Herria sozialista, feminista eta euskalduna ipar, Euskal Errepublikak izaten jarraitzen du. Eguneroko lanak eramango gaitu horra ordea, eta horretarako iruditegiz, formaz, epikaz eta praktikaz eraldatzailea izango den iparra bilakatu behar dugu.


Euskal Herria eraikitzen bidean, herri mugimendurekin eta gazte mugimendurekin harremana estutu, saretzeko indartu eta elkarlana bultzat-

zea dagokigu. Badakigulako ez dela E egunetik etorriko, eta guk argi dugulako ez garaela eserita zain geratuko. Herri ekimenez

eta estatugintzarako urratsak emanek jarraituko dugu. Duela 50 urte abiatutako prozesua oraindik ez delako amaitu.

Atera ditugu ikaspenak prozesu hartatik, eta aterako ditugu ondorengo lanetatik ere. Sortzailetasuna, herriaren batasuna eta garaipenean sinestea izan daitezke horietako hiru. Izan ere, duela mende erdi abiatu zuten gure erantzunak artikulatu eta mahaigaineratzeko beste molde bat, gure berri munduari emateko bozgorailua nola erabiltzen asmatu zuten. **Anitzen arteko artikulazioari eta herri batasunari esker izan zen Burgosko prozesua izan zena. Auzipetuak Herriarekin bat bizi zirelako, eta Herria auzipetuekin bat; guztiak norantza berean indar egiten zebiltzalako, tribunaletik kalera, eta sukalde txoketatik egunkarietako azaletara.** Eta garaipena posible dela, konpromisoz eta lan eginez lortu daitekela ikasi genuen, eta aurrera jarraitzeko grina bizirik mantentzen digu horrek.

“Ezpatari nagusitzen zaio herria” izan da egun hauetan behin eta berriz errepikatutako Telesforo Monzonen leloa. **Ezpatari gailendu zitzaion orduan, eta egunez egun jarraitzen dugu borroka horretan belaunaldi berrietako gazte ameslariok ekinean.**





JEFF BEZOS

Amazonen sortzaile eta zuzendaria

2019 51, 17M t CO₂ ESPAINIAK
ESTATUKO EMISIOEN %6

**MUNDUKO
PERTSONA
ABERATSENA**

2010 - 24 miloi \$ urteko gu-
txieneko soldata x 1480
uztaila - maila Amazon %84
igo =96.000 miloi \$



**gabon hauetan
ZER OPARITUKO
DUZU?**

**PREZIO
MERKEAGOAK
ETA LOGISTIKA
BALIABIDEEN
MONOPOLIOA**

**GURE DATUEKIN
NEGOZIOA**

**ENPLEGUA
SUNTSITU**

**LAN-BALDINTZA
PREKARIOAK**

ZERGARIK EZ!

2019 7,500M€ espai-
niar estatuak

5,5M€ zergak lu-
xenburgon tribulatu
PARADISU FISKALA

- Langileen espioitza anto-
laketā sindikalaren aurka.

- Espainiako estatuak
8.000 langile erregulariza-
tu behar izan ditu, auto-
nomo faltsuak ziren (4M
aurreztu zergetan).

- AEB-tan pandemian
zehar langileei 20\$ko tasa
ez zen ordaitzen.

**KONTSUMO
BASATIA
BULTZATU**

**MUGIMENDU
SOZIALEN ESPIOITZA**

Adb.: Greenpeace eta FFF
kriminalizatzeke txostenak
kaleratu.

**eta
instituzioek?
ALFONBRA
GORRIA!**

KONFIDAMENDUA

komertzio txikia

Amazonen
banatzaileak
ezinbestekoak

itxita

**LAN BALDINTZA
PREKARIZATU ETA**

**GURE HERRIAK
EKONOMIA HIL**

**ez erosi
amazonen**



Gutuna

ELKARREKIN, LORTUKO DUGU!

Mont de Marsango Euskal Preso Politikoak

Aupa zuek!

Lerro hauen bidez besarkada bero bat eta daramazuen borroka bidean aurrera egiteko gure bultzada helarazi nahi dizuegu Ernain antolatuta lanean zabiltzaten euskal gazte guztiei, inorentzat samurrak izaten ari ez diren garaiotan.

Bai, kalean bezala, espetxeetan ere korapilotsuak izaten ari dira azken hilabete hauek, guztion bizibaldintzak okertu baitira hortik zehar dabilen birusaren eraginez. Esan liteke, presondegiko ohiko horma eta laztasunak are gordinagoak bilakatu zaizkigula, premiazkoagoa bilakaturik gatibu gauden militante abertzale guztiak askatzeko beharra, egoera bereziki larrietan ditugun kideak kalean jartzetik hasita.

Edonola ere, jakin badakigunez presoak etxeratzeko bide hori neketsua eta balaztez beterikoa izango dela, ireki daitekeen aukera oro elikatzeke indar egiten jarraitu beharko dugu aurrerantzean ere. Presoekiko elkartasunez egiten diren ekimenak itxaropen hori hauspotzeko motibo dira guretzat, guk ere zuekin, euskal herritar eta eragileekin batera egin nahi dugulako bidea, preso politikorik gabeko Euskal Herria helburu. Horregatik dira hain garrantzitsuak gazte mailan presoek kaleratzearen alde egiten diren ekimenak.

Bien bitartean, zuen ekinbidea gertu-gertutik jarraitzen dugula esan nahi dizuegu, Euskal Herriaren nazio askapenaren aldeko konpromisoaren eredu zaretelako guretzat, eguneroko lan antolatuan eta egiten dituzuen ekintzetan erakusten duzuen bezala. Beste inori baino gehiago zuei baitagokizue ezker independentista ideia eta ekarpen berriez elikatzea, molde berriez ekitea, gazte geroz eta gehiago independentziaren aldeko bidera bilduz, zuengan baitago gure herriarentzat ortzi-muga berriak marraztu eta aldaketa sakonak eragiteko bulkada.



Azken batean, Euskal Errepublikaren etorkizuna orainean eta egunez eguneko ekinean eraikitzen da: euskaraz eta euskaldun gisa bizitzeko hautua eginez; euskal lurraldeen arteko batasuna eraikiz eta Euskal Herriko txoko ezberdinetako gazteen arteko sareak ehunduz; gure herria espainiar eta frantses zapalkuntzen aurrean defendatuz; justizia sozialaren alde borroka eginez; gazte problematikei aterabideak proposatuz; eredu heteropatriarkalaren aurrean jendarte feminista baten hazia ereinez... abertzale iraultzaileontzat, Euskal Errepublikarantz doan bidea zapalkuntza oren aurkako eta pertsona guztien duintasuna eta askatasunen aldeko borroka ere badelako.

Elkarrekin, lortuko dugu! Aberria eta bizi! Euskal Herria aske baten alde, jo eta ke aurrera!

2020ko abenduan,
Mont de Marsango Euskal Preso Politikoak.